

# BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak, gimnasio ekologiko-solidario bat martxan jartzea du helburu.

Gimnasioaren bazkideek, gure lokalean jarduera fisikoaren bidez elektrizitatea sortzen dituzten kirol makinetan aritzeko aukera izango dute, ondoren generadore batean gorde ahal izango dena. Proiektu honi esker lortutako elektrizitatearekin, gure bezeroek gaur egun kezkatzen gaituzten hiru arazo modu erraz batean konpontzen (edo gutxienez murrizten) laguntzeko aukera izango dute:

Alde batetik, gure gimnasio ekologiko-solidarioari esker, hain kaltegarria bilakatzen ari diren kutsadura mailak murriztuko ditu. Gainera, denborarekin hirietan zehar lokal bat baino gehiago irekitzeko aukera badugu, elektrizitatea ekoizteko prozesuan zentral termikoek atmosferara askatutako karbono dioxidoaren ekoizpena gutxituko litzateke.

Bestalde, sortutako energia gordetzen dituzten generadoreak, Afrikako hainbat herri txikietan dauden eskoletara bidaltzea gustatuko litzaiguke, horko umeen hezkuntza kalitatea hobetzeko (argia izateko, ordenagailuekin aritzeko aukera izateko...)

Azkenik, lehen aipatu dugun moduan, guzti hau jarduera fisikoari esker lortuko genuke. Hortaz, jendea animatzen baldin bada, azken batean haien osasuna hobetzen egongo litzateke.

- Gure balioa kuantitatiboa da.